

Hildako herritarrak

Ermuko Santiago Parrokiako heriotza-liburuetan, 1936ko gudaren ondorioz hildako hainbat ermuarren berri ematen da, euren jaioterrian idatziz jasotzeko Gotzainaren aginduari jarraituz eginikoa. Honetan Erregistro Zibileko informazioa eskasagoa da.

Abade desberdinen eskutik jasotzen dira agiriak eta hildako batzuen kasuan datu soilak datozen bezala, beste batzuenak zehaztasun ugarirekin dauzkagu; hil egiten dira batzuk, erahilak dira beste batzuk... Heriotzak herio, haxe zendutakoen zerrenda:

Victor Zabala Izagirre, 36 urte, Salvador eta Manuelaren semea, 1937ko apirilaren 22an Eibarko errefugio batean hil zen, "airezko bonbardaketa batek egin-dako zaurien ondorioz".

Apirilaren 25ean, "gerrako hegazkin batek jaurti zuen lehergailu baten ondorioz" Roman Olañeta Onandia hil zen, Francisco eta Modestaren semea, eta eraso 17:00etan izan zen.

22 urteko Nicolas Careaga Unamuno, Nicolas eta Juliaren seme, urte bereko irailaren 11n zendu zen Valdecillako Osasun Etxean, Santanderko frontean pairatutako zauriengatik.

1937 urtea amaitu aurretik, 6 gizonezkoren datuak jasotzen dira:

Jesus Gallastegui Telleria, 28 urte, Jose eta Mer-

cedesen semea, Sabino Arana Goiri Bataloikide, Bizkaiko frontean zendua, Sabinaingo kokapenean.

Atanasio Yarza Sagarraga, 22 urte, Vicente eta Franciscarena, Kirikiño Bataloikide, Bizkaiko frontean zendua, Kantauri itsasertzean.

23 urteko Francisco Suinaga Orbe, Santos eta Mariaren seme, Nazionalen Ejertzitoetako kide, uztailaren 15ean hil zen Gurutzetako Ospitalean, sukar tifoideen ondorioz.

Felix Solozabal Echevarria, 19 urteko Bernardino eta Melaniaren semea, 1936ko irailaren 25ean "gorriek eraila" izan zen Cabo Quilates itsasontzian; Tomas Lasarte Lasarte, Agapito eta Mariaren semea, eta Ildefonso Landa Acha, Severiano eta Anacletarena, kartzela-itsasontzi berean erail zituzten urriaren 2an.

1938ko martxoaren 24an, 27 urteko Adolfo eta Mariaren seme Claudio Gorrichategui Gorroño, basoan topatutako esku-lehergailu batek ezustean errebentatu eta, ondorioz, hil egin zen.



36ko gudan jausitakoen oroigarria, guztien izenak jasotzen ez zituen arren, Erdiko kalean, Santiago iturri ondoan egon zen 80ko hamarkadara arte.

23 urteko Santos eta Franciscaren seme Francisco Aguirre Telleriaren heriotza, frontean jasandako zaurien ondorioz, 1938ko maiatzaren 26an jasotzen da.

Urte bereko urriaren 28an idazten da Ignacio Narbaiza Celaya, Teodoro eta Josefaren 21 urteko semearena, Catalunya frontean hila suertatu zena, ejertzito nazionalen Jaungoikoa eta Aberriaren alde "gloriosamente", lorioski borrokatzen zegoela.

Madrileko frontean lorioski borrokatzen ere adin

bereko Vicente Beitia Ciar solo hil zen, eta 1939ko urtarrilaren 22an jasotzen da idatziz.

Azkenik, 1936ko irailaren 4an "horda gorriek eraildako" 32 urteko Ignacio Olañeta Villaren heriotzaren berri 1939ko maiatzaren 28an jasotzen da, ordura arte bere gorpua Eibar eta Elgeta arteko leku bakarti batean egon zen, eta herriko kanposantuan lurperatu zuten.

Gerra krudel baten ondorioz hilak, bake-baketan daudela guzti-guztiak!

Estibalitz González

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]
Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

Caperos
Pinxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154